

Dragões

Mundua, Xuan Bello idazle asturiarraren ustetan, hamalau etxeko herrixka bat izan daiteke, besterik gabe, eta zaldi edo larrerren bat...: “Pepín Sueirukoak, egun batez, esan zigun ea zergatik ez genuen mundua marrazten. Nik, gutxi-asko, kontinenteetako marrazteko zirriboratu nituen, baina Zoilo luzaroan egon zen pentsakor, harik eta marrazteari ekin zion arte. Egin zuena erakutsi zigularik, ni irriz karkailaka hasi nintzen: munduaren mapa hartan Paniceiroseko hamalau etxeak zeuden, aurrez aurre Busturniegu izeneko tokia, eta Jimmy zaldia, handi handia eta azula, Curqueidar esaten dieten larreetan bazkatzen”.

Baina mundua, Joseph Conrad-en ustetan, espazio mugagabe bezain kilikagarria izan daiteke, esploratzeaz dauden zuriunez beteriko mapa bat...: “Ttikia nintzenez, mapek liluratu egiten ninduten. Orduak eta orduak ematen nituen Hego Amerikari edo Afrikari edo Australiari begira, eta esplorazioaren ederrean galtzen nintzen. Garai hartan zuriune asko zegoen Lurraren azalean eta, haietako bat bereziki kilikagarria zitzaidanean –eta zein ez kilikagarria iruditul–, atzamarra haren gainean ipini eta, ‘handitzen naizenean, haraxe joango naiz’ esaten nion neure buruari”.

Munduari begiratzeko lupa nahiz teleskopioa erabili, bistan da mapa guztiak gure aurreiritziak eta ideologiek moldatuak direla, gure ezjakintasunak eta gure beldurrak... Portulagen, Belém-eko museo kartografikoan bada XIV. mendeko mundu ezaguna erakusten duen mapa bat, gainerako masa misteriotsua azaltzeko honela dioena: “*De aquí para diante só há dragões*”. Duela bosasei urte, garaitu honetan, beldurraren araberako mapa bat agertu zen *El Mundo* egunkarian, “Bidaia arriskutsuak” izenburupean, eta ertz batean, letra ezin tikiagoan, egilea zuena: Foreign Office. Letra handiz, baina, mapan zehar ageri ziren hiru gakoen argibi-



ZALDI ERO

dea zetorren: marra tiki bat hexagono baten barnean nora ez zen joan behar adierazteko (⊖), hau da, Kolonbia, Libia edo Kanbodia...; triangelu baten barneko harridura marka neurriak non hartzea komeni zen aditzera emateko (Δ), hau da, Egipto, Kenia edo Sri Lanka; eta harridura marka handi bat kontuz ibiltzea eta manifestazioak non saihestu behar ziren adierazteko (i) hau da, Peru, Nepal edo Euskal Herria...

Horrek guztiak oroitarazi dit egun batetik bestera lausotu eta arrakaldu den Euskal Herriaren mapa. Dragões... Goizean eguraldiaren mapa bat erakutsi ziguten EITBko albistegian eta beste bat iluntzean.

Dragões... Jakin nahi nuke Bonaparteren euskalkien mapa ezaguna ere dagoeneko zenbatek ezkutatu duten bulegoan edo, besterik gabe, eraitsi. Dragões... Eta, hala ere, esanak esan eta mapak mapa, nago nekezagoa zaigula gure barrenaren kartografia egitea kanpoko espazioarena baino, esan nahi dut kanporako –Euskal Herrirako– begirakuneak –sarri patologikoak– ez digula geure barrenari behar bezala begiratzeko uzten, eta aitzakia ere bazaigula hainbat barne gabezia berdintzeko eta hainbat zulo estaltzeko (egin al duzu zure

ilusioen eta afektibitatearen arkeologia noizbait?, “zurea” esan nahi dut, “zeure-zeurea” eta ez gure honetan hain ohikoa den “gurea”). Geure baitako kontinente eta artxipielagoetan zuriune ugari dago, mendikate ikusgarriak eta amildegi itsugarriak, kostalde turkesak eta estolderia uherrak, eta nago eremu horietako bidaia direla arrisku-tsuenak, herensugetsuenak,

esploratzaile bizkor eta menturazaleak eskatzen dituztenak, aldaketak ekar ditzaketenak.

*(Atrebentziarekin, udarako bi gomen-dio –edo hiru– barne –eta kanpoko– mapak berrosatze aldera, Xuan Belloren *Historia universal de Paniceiros* eta *Los cuarteles de la memoria*, eta Tomas Espedal norvegiarraren *Caminar –o el arte de vivir una vida salvaje y poética–*) ■



irudia:

Antton Olariaga